

PRENTSA OHARRA
2019/03/15

Artista gazteek lehen aldiz erakutsi ahal izango ditue euren lanak, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sinatu dan hitzarmenari esker

Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak eta Nekane Balluerka Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreak, lankidetzarako hitzarmena sinatu dabe gaur, martiaren 15ean, Arte Ederretako Fakultadeko ikasleen artelanak Foru Kamaran erakusteko. Lau urteko indarraldia, modu automatikoan beste lau urtetan luzatu ahal izango dana, dauen hitzarmenak sendotu egiten dau erakunde bien artean 2011tik indarrean dagon lankidetzea.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoa izan da akordioa sinatu dan agertokia. Bertara, Arte Ederren Fakultadeko irakasleak (Fito Ramírez-Escudero, Usoa Fullaondo, Txus Meléndez, Jesús Mari Lazkano, Daniel Tamayo edo Damaris Pan) eta azkenengo urteetan Batzarretako Erakusketa Aretoan euren artelanak erakutsi dituen artistak (Amaia Lejarreta, Mainer Santos, Lide Kaltzada, Gabriel Camino, Irantzu Aldabere, Izaskun Araluzea, Mikel del Río, Eriz Moreno, batzuen artean) be etorri dira. Bertan egon dira, baita be, Joseba Gezuraga Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteordea eta Patxi Juaristi UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Erretoreordea. Hitzarmen barriari esker, graduosteko ikasle gazteek lehen aldiz erakutsi ahal izango ditue euren lanak, katalogo batean jasota ikusi eta euren artelan bat Bizkaiko Foru Kamarako arte bildumaren parte izateko aukerea izango dabe.

“Gaur beste aurrerapausu bat emongo dogu gure erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen, bertako Arte Ederren Fakultadearen bitartez, arteko lankidetzaren ibilpide emonkorrean. Azkenengo hamarkadan, berrogei artista gazte inguruk euren lanak erakutsi ahal izan ditue umila izan arren uriaren erdialdean dagon erakusketa areto honetan”, esan dau Ana Otadui. Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkari nagusiak azpimarratu dauenez, hitzarmen horren sinadureak “Batzarretako Mahaiko indar politiko guztien aho bateko adostasuna” jaso dau, eta “XXI. mendeko batzar moduan daukagun betebeharra osatzen daben kultur jardueren” garrantzia be azpimarratu dau.

Nekane Balluerka EHU/UPVko errektorea pozik agertu da hitzarmenaren sinadurea dala eta, eta azpimarratu dauenez, “hitzarmen horregaz finkatu egiten da Bizkaiko Batzar Nagusien eta Euskal Herriko Unibertsitatearen apustua, Arte Ederretako geure ikasleen sorkuntza lana bultzatzeko. Helburua arte sorkuntzari lagunduko deusan ingurunea sortzea da, eta akordio hau horretara garaman beste pausu bat da”.

Urtean hiru erakusketa inguru antolatzeke aukerea emongo dau, ikasle birena, Arte Ikerketa eta Sorkuntza, Pintura, Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Zeramika eta Funtzioa, eta Erakusketa Masterretako sortzaile gazteena, artelanen arteko alkarrizketan oinarrituta. Erakusketa Masterretako sortzaile gazteena, artelanen arteko alkarrizketan oinarrituta. Hitzarmenaren barruan, Batzar Nagusiek erakusketa baten katalogo bat egingo dabe eta artelan bat erosiko dabe, bere bilduman sartzeko.

Genero ikuspegia

Hitzarmenaren xedea “Bizkaiko artista gazteen lanak ezagutuazotea da, genero ikuspegia sartuz, gure Lurralde Historikoko emakume artisten partaidetza orekatua bermatu ahal izateko”. Hitzarmen hau garatzeko, eta jagokon jarraipena egiteko, Garapen eta Jarraipen Batzordea eratuko da, EHUren ordezkari batek eta Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkari batek osatua, hitzarmeneko ekintzak indartzeko eta ebaluatzeko.

2010eko garagarrilean zabaldu zanetik gaur arte, Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko Egoitzako Erakusketa Aretoak hogeitatu bat arte erakusketa jaso ditu, UPV/EHUguz lankidetzan. Lehenengoak, “Exposición Cero” izenekoak, Fito Ramírez-Escudero, Iñaki Bilbao eta David García Arte Ederren Fakultadeko irakasleen pintura lana batu eban. “ESO” izeneko azkenengoak, Ane Zelaia eta Maider Santos artistek hainbat euskarritan egindako 20 olio-pintura jaso ditu. Azken lan horreek joan dan urtarrilaren 22tik ikusi daitezke.

Erakusketa bi horreen artean, Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoak hainbat estilotako eta diziplinatoko artelanak jaso ditu Jon Martín, Jon Ander García Benítez, María García Benítez, Gabriel Camino, Leire Sánchez, Izaskun Araluzea eta Iranzu Aldabere artista gazteenak, beste batzuen artean. Usoa Fullaondo eta Txus Meléndez irakasleek antolatu ditue erakusketa asko.

Artelanak eta katalogoak

Ana Otadui eta Nekane Balluerkak, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari nagusiek, hurrenez hurren, sinatu dabe hitzarmena, “ESO” erakusketan jasotako Zelaiaren eta Santosen artelanek inguratuta. Ekitaldi honetarako, erakusketa aretoak aurreko erakusketen katalogoak erakusten eban. Sinaduraren ostean ibilpidea egin da Batzarretako Bilboko egoitzatik. Bertan dagoz ikusgai Bizkaiko Foru Aldundiak bere bildumarako eskuratu dituan Arte Ederretako ikasleen argazkiak, eskulturak eta margolanak.

Hitzarmen honetatik sortuko dan lehenengo erakusketa garagarriaren erdialdean inaugurauko da; Carmen Marín irakasleak zuzentzen dauen Zeramika graduosteko masterraren amaierako hogeitatu lan inguru batzen dituan erakusketa kolektiboa izango da.

Bizkaiko Batzar Nagusiek 1985ean hasitako arte bilduma azpimarragarria daukie, eta urte bakotxean gora egiten dau, UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultadeko sortzaile gazteen erakusketa bakotxean artelan bat erosten dauelako. Jorge Oteiza, Gabriel Ramos Uranga, Mikel Díez Alaba, Daniel Tamaño, Alfonso Gortázar eta Jesús Mari Lazkano dira Bilboko Hurtado de Amézaga kaleko 6. zenbakian dagon Bizkaiko Batzar Nagusien administrazin egoitzako bulegoetan, igarobideetan eta egongelatan ikusi daitezkezan artelanak egin dituen artistetako batzuk.

Bilduman, azpimarragarriak dira XX. eta XXI. mendeetako emakume margolarien, eskulturagileen eta argazkilarien 40 artelan baino gehiago. Horrek argi eta garbi erakusten dau Bizkaiko Batzar Nagusiek artea erosteko politikan izan dauen ikuspegi bardinzale aitzindaria. Mari Puri Herrero, Juana Cima, Mertxe Olabe, Asun Goikoetxea, Abigail Lazkoz, Dora Salazar, Begoña Zubero, Damaris Pan, Lide Kaltzada edo Andrea Abalia artisten sorkuntza lanak, beste batzuen artean, ibilaldi parebakoa eskaintzen dabe emakumeek egindako euskal arte garaikidetik.

NOTA DE PRENSA
15/03/2019

Jóvenes artistas expondrán sus creaciones por primera vez gracias al convenio firmado entre las Juntas Generales de Bizkaia y la Universidad del País Vasco

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, y Nekane Balluerka, Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, han firmado hoy, viernes día 15 de marzo, un convenio de colaboración para la exposición en la Cámara Foral de obras artísticas de alumnado de la Facultad de Bellas Artes. Este convenio, que tendrá una vigencia de cuatro años prorrogables automáticamente a otros cuatro, consolida la colaboración que mantienen ambas instituciones desde el año 2011.

La Sala de Exposiciones de las Juntas Generales ha sido el escenario de la rúbrica de este acuerdo, a la que han acudido profesorado de la Facultad de Bellas Artes (Fito Ramírez-Escudero, Usoa Fullaondo, Txus Meléndez, Jesús Mari Lazkano, Daniel Tamayo o Damaris Pan) y alumnado (Amaia Lejarreta, Maider Santos, Lide Kaltzada, Gabriel Camino, Irantzu Aldabere, Izaskun Araluzea, Mikel del Río, Eriz Moreno, entre otros y otras) que ha expuesto sus obras en los últimos años en este mismo espacio. También han estado presentes Joseba Gezuraga, Vicepresidente de las Juntas Generales de Bizkaia, así como el Vicerrector del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU, Patxi Juaristi. Gracias al convenio, jóvenes estudiantes de posgrado podrán mostrar sus creaciones por primera vez, ver sus obras recogidas en un catálogo y tener la posibilidad de que uno de sus trabajos sea adquirido y pase a formar de la colección artística de la Cámara Foral de Bizkaia.

“Hoy vamos a dar un nuevo paso en la fructífera trayectoria de colaboración entre nuestra institución parlamentaria y la Universidad del País Vasco a través de su Facultad de Bellas Artes. En la última década una cuarentena de artistas jóvenes ha podido exponer en esta modesta, pero céntrica sala de exposiciones”, ha señalado Ana Otadui. La máxima autoridad de las Juntas Generales de Bizkaia ha destacado que la firma de este convenio ha sido “respaldado por unanimidad por todas las fuerzas políticas en la Mesa de Juntas”, subrayando también la importancia de “las actividades culturales que completan nuestra función como parlamento del siglo XXI”.

La Rectora de la UPV/EHU, Nekane Balluerka, se ha felicitado por la firma de este convenio y ha destacado que “con él se consolida la apuesta conjunta de Juntas Generales de Bizkaia y de la Universidad del País Vasco para estimular el trabajo creativo de nuestro alumnado de Bellas Artes. Se trata de propiciar un entorno favorable a la creación artística y este acuerdo es un paso más en ese sentido”.

El convenio firmado hoy permitirá la organización de unas tres exposiciones anuales, que se plantean desde el diálogo entre las obras de dos jóvenes creadores o creadoras de todos los Máster de Bellas Artes: Investigación y Creación en Arte; Pintura; Conservación y Exhibición en Arte Contemporáneo, y Cerámica y Función. El acuerdo incluye la elaboración de un catálogo y la adquisición de una obra de arte de cada exposición por parte de las Juntas Generales para incorporarla a su colección.

Una perspectiva de género

El objetivo es “difundir los trabajos de los y las artistas noveles de Bizkaia, incorporando una perspectiva de género, de forma que se garantice una participación equilibrada de las mujeres artistas de nuestro Territorio Histórico”. Para garantizar el cumplimiento del convenio, se constituirá una Comisión de Desarrollo y Seguimiento, integrada por una persona en representación de la UPV/EHU y otra, de las Juntas Generales de Bizkaia, con el fin de potenciar y evaluar las acciones derivadas del mismo.

Desde que se abrió en julio de 2010 y hasta la actualidad, la Sala de Exposiciones de la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia ha acogido una veintena de muestras artísticas en colaboración con la UPV/EHU. La primera, titulada “Exposición Cero” reunió obra pictórica de Fito Ramírez-Escudero, Iñaki Bilbao y David García, profesores de la Facultad de Bellas Artes. La última exposición, “ESO”, reúne 20 óleos en diferentes soportes de las artistas Ane Zelaia y Mainer Santos que se muestran desde el pasado 22 de enero.

Entre estas dos muestras, la sala de exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia ha mostrado obras de diferentes estilos y disciplinas de jóvenes artistas como Jon Martín, Jon Ander García Benítez, María García Benítez, Gabriel Camino, Leire Sánchez, Izaskun Araluzea e Iranzu Aldabere, entre otros y otras. La profesora Usoa Fullaondo y el profesor Txus Meléndez han organizado buena parte de las exposiciones.

Obras y catálogos

Ana Otadui y Nekane Balluerka, máximas representantes de las Juntas Generales de Bizkaia y de la Universidad del País Vasco, respectivamente, han rubricado el convenio rodeadas por las obras de Zelaia y Santos reunidas en “ESO” en un espacio expositivo que, para la ocasión, mostraba también los catálogos de exposiciones anteriores. Tras la firma, se ha realizado un recorrido por la sede bilbaína de la Casa de Juntas donde se exponen las fotografías, esculturas y pinturas de alumnos y alumnas de Bellas Artes que las Juntas de Bizkaia han adquirido en los últimos años para su colección.

La primera exposición nacida de este convenio se inaugurará a mediados de julio; será una muestra colectiva de una veintena de trabajos de fin de máster del posgrado de Cerámica, que dirige la profesora Carmen Marín.

Las Juntas Generales de Bizkaia cuentan con una destacada colección de arte iniciada en 1985 y que cada año se incrementa con la compra de una obra de cada exposición de jóvenes creadores y creadoras de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Jorge Oteiza, Gabriel Ramos Uranga, Mikel Díez Alaba, Daniel Tamaño, Alfonso Gortázar y Jesús Mari Lazkano son algunos de los artistas cuyas obras se pueden admirar en los despachos, pasillos y salones de la sede administrativa de la Cámara Foral Vizcaína en el número 6 de la bilbaína calle Hurtado de Amézaga.

En la colección, destacan las más de 40 obras de pintoras, escultoras y fotógrafas de los siglos XX y XXI que reflejan la pionera visión igualitaria de la Cámara Foral en la política de adquisiciones artísticas. Las creaciones de Mari Puri Herrero, Juana Cima, Mertxe Olabe, Asun Goikoetxea, Abigail Lazkoz, Dora Salazar, Begoña Zubero, Damaris Pan, Lide Kaltzada o Andrea Abalia, entre otras, ofrecen un recorrido único del arte vasco contemporáneo realizado por mujeres.